

Altza

San Martzialak bete hitzordu

San Martzial jaiak uztailaren 3a arte iraungo dute. Gazte talde batek antolatutako ekintzak, Altzako Historia Mintegiak prestatutako erakusketa eta eDonostia.net-eko internet ginkana dira aurtengo festetako berrikuntza nagusiak.

Urtero bezala, Altzatarrik elkarteak antolatu ditu San Martzial festak. Dena dela, gazte talde batek, jai egitarauan gazteentzako ia ekitaldirik ez zegoela ikusirik, jai egitarau alternatiboa prestatu du. Ekitaldi gehientsuenak larunbat honetan, ekainak 26, eta hurrengoan, uztailak 3, izango dira. Ekainaren 26an, eguerdian zarpantzarrik Altzan barrena ibiliko dira eta ondoren, herri bazkaria izango da. Arratsaldean, lehenik koadrilen arteko jokoak izango dira eta jarraian, herri poteoa Burrumbada taldearekin. Gauean, Ametshuntza eta Lola's Club talde donostiarrek konzertua eskainiko dute. Uztailaren 2an, bestalde,

kale antzerkia, kinitoa, konzertua eta tortilla lehiaketa izango dira, besteak beste.

Zinemak ere izango du leku Altzan. Asteazkenean, ekainak 30, film laburrak pantailaratuko dira Altza kultur etxean. Ostiralean, uztailak 2, dokumental bat emango da Altza kultur etxean arratsaldean eta ondoren, DJ-ak izango dira plaza inguruan.

Internet ginkana


Larratxo pasealekuko eDonostia.net Teknologia Berrien Zentroak lehen aldiz parte hartuko du jaietan. Ekainak 27tik uztailaren 3a arte, argazki digitaletan osaturiko Altzari buruzko erakusketa ikusi ahaliko da ekainaren 27tik uztailaren 3a arte (astelehenerdik ostiralera goizez eta arratsaldean).

Zenbait gaztek jai egitarau alternatiboa prestatu dute

ren 30ean eta uztailaren 1ean eta 2an internet ginkana antolatu du, 10 eta 14 urte bitarteko gaztetxoentzat. Guneko lagunek eskatutakoa bilatu beharko dute sarean gaztetxoek. Horretaz gain, zenbait informatika-programekin eta jokorekin trebatuko dira gazteak. Ekimen honetan izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko 902 077800 telefono zenbakira deitu behar da. Bestalde, eDonostia.net-en bertan, argazki digitaletan osaturiko Altzari buruzko erakusketa ikusi ahaliko da ekainaren 27tik uztailaren 3a arte (astelehenerdik ostiralera goizez eta arratsaldean).

Erakusketa

Gazteentzako ekitaldiak ez ezik, badira nabarmentzeko moduko beste berrikuntza batzuk aurtengo sanmartzialean. Adibidez, Altzako Historia



Aspaldiko tresnak egongo dira ikusgai Historia Mintegiko erakusketan

Mintegiak elizaren etxabeetan antolatutako duen erakusketan 130 bat tresna ikusi ahaliko dira. Objektu horiek guztiek badute elkarren artean zerikusirik: lantegietan eginak dira, 50eko eta 60ko hamarkadetan ohikoak ziren alztatarren etxeetan eta egun gehien gehienak ez dira erabiltzen. Idazmakinak, josteko makinak, patatak zuritzeko tresna, zurezko jostailuak eta intsektuak hiltzeko tramankulu bitxia egongo dira ikusgai, besteak beste. Historia Mintegiko kide Iñigo Landak erakusketaren bi helburuak azaldu dizkigu: "Batetik, jendeari tresna zaharrak nora eraman badagoez erakutsi nahi diogu. Bestetik, tresna hauentzako guztientzako lokal bat behar dugula aldarrikatu nahi dugu". Erakusketa uztailaren 2a arte bisitatu ahaliko da, arratsaldean.



eDonostia.net zentroan haurrentzako internet ginkana egingo da

Argitalpen honen edizioan lankide:



kutxa
gizarte ekintza

Hona hemen uztailaren 2ra arteko ekitaldiak.

Ostirala 25

18:00 San Martzial Pilota Txapelketarako finalak jokatuko dira frontoian

21:00 Pilota txapelketetan parte hartu duten pilotari guzientzat afaria egingo da Altzatarrek elkarrean

Larunbata 26

16:00 Lagunarteko Esku Pilota Txapelketa Izena frontoian bertan eman behar da

Igandea 27

10:30 Lagunarteko Esku Pilota Txapelketa finalerdiak eta finala

13:00 San Martzial zahar etxeko abesbatza eta errondaila frontoian

19:00 Sardina jatea Solar Gailur ardoaz lagunduta, plazan

Astelehena 28

17:00 Bolo txapelketa haurrentzat

19:00 San Martzial Toka Txapelketa

20:00 Bote eta idel-toka txapelketa helduentzat

Asteartea 29

17:00 Bolo txapelketa helduentzat

20:00 Elizako koruak Salbea abestuko du

20:30 Txupinazoa: Buruhandiak eta trikitilariak aterako dira

21:00 Danborradako kideen afaria Altzatarrek elkarrean

22:30 Danborrada Altzako kaleetan barrena

00:00 Altzako bandera jasoko dute Udaltxean. Bertaratutakoek San Martzial martxa abestuko dute danborradak eta Pasai txarangak lagunduta

Asteazkena 30 San Martzial eguna

08:00 Diana Ilunbeko dultzaineroekin

10:00 Meza

11:30 Pilotaren Eguna: Infantilak Ruizek eta Elizaldek Esnaola eta Martikorenaren kontra jokatu dute eta Diez de Gerenu eta Hernandez Elizasu eta Armentalen aurka ariko dira. Kadeteetan Unanue-Sorando eta Ujia-Zalakain bikoteak ariko dira. nor baino nor

18:00 Pilota Egunaren jarraipena

dubenilak, Elejaldek eta Iraolak Alberro eta Fernandezek kontra jokatu dute. Afizionatuak: Lelenik, Arrizabalaga eta Iburguren Unanue eta Etxebesteren aurka lehiatuko dira eta ondoren, Roteta-Arruti eta Urmeneta-Aranalde bikoteek neurtuko dituzte indarrak

18:30 Trabu Zaharra antzerki taldeak "Elvis vete ya" obra antzeztuko du

19:00 Herri Ametsa dantza taldea ariko da plazan

Osteguna 1

11:00 Hildako auzotarren aldeko meza

12:30 Zahar etxeko antolatutako toka Txapelketa

16:30 Haur jolasak


18:00 Poixin eta Patxin pailazoak frontoian izango dira

20:00 Alkantasuna dantza taldearen emanaldia frontoian

23:00 Lola's Club taldearen emanaldia

Ostirala 2 Santa Isabel eguna

08:00 Diana Ilunbeko dultzaineroekin



Egitaraua

09:00 Idi-deman parte hartuko duten lau idi bikoteak pisatuko dituzte

10:00 Meza

10:30 Altzako baserrietako produktuak salgai izango dira plazan

10:45 Sagardo lehiaketa, frontoian

12:00 Idi-dema

13:00 Sustrai Colina eta Andoni Egana bertsolariek ariko dira

14:00 Herri bazkaria Egana eta Colina bertsolariekin, Altzatarrek elkarrean

18:00 Idi-dema

19:45 Sustrai Colina eta Egana bertsolariek ariko dira

23:00 Dantzaldia Miramar taldearekin

ALTZA HERRI IKASTETXEA S.J.C.



TXAPIN-ENE 21-23 • 20017 DONOSTIA • Tel. eta faxa: 943 35 20 24
altzaeskol@euskalnet.net

MAGNETISTA NATUROPATA

Tel. 943 623055 • San Marzial 7 - IRUN

- | | | |
|-------------------------|-----------------------|----------------------|
| ERREKUPERAZIOAK | IKUSMENA | GIHARRETAKO |
| - Diabetea | ERREKUPERATZEA | ARAZOAK |
| - Larruazaleko alergiak | - Begi nagiak | - Erreabilitazioa |
| - Asma | - Miopia | - Artrosia |
| - Buruko mina | - Hipermetropia | - Erreuma-artritisia |
| - Prostatita | - Estrabismoa | - Lunbaldiak |
| - Birusak | - Begi-lausoak | - Lepoko mina |
| - Oinetako izerdia | | |

ORDUTEGIA
Goizez 9:30
Asteazkez 17:00
Aurreko ordutegia harria

Zentru ez sanitarioa

Bertan eginak • Etxez-etxeko banaketa



GOZO ETA BONBOI DENDA

Txirrita bertsolaria, 3 • Tel.: 943- 391605 ALTZA